

| | | | | |
|----------|----|------|------------|----------------|
| Lurralde | 11 | 1988 | p. 459-466 | ISSN 0211-5891 |
|----------|----|------|------------|----------------|

CDU 914.66:63

NEKAZAL ESPAZIOARI HURBILKETA EUSKAL HERRIKO KOMUNITATE AUTONOMOAN

Recibido: 1988-01-19

MIKEL UBILLOS SALABERRIA
ANTONIO CAÑAMERO REDONDO

Instituto Geográfico Vasco «Andrés de Urdaneta»
C/ San Marcial, 13 - 4C. - 20005 San Sebastián.

RESUMEN: Aproximación al estudio del espacio ganadero en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se ofrece en este artículo una aproximación al estudio del espacio ganadero en la Comunidad Autónoma del País Vasco en base a los datos del Censo Agrario-1982, estudiando su importancia económica dentro del sector agrario y su incidencia espacial en las distintas comarcas. Igualmente se hace un estudio sobre las unidades ganaderas (bovinas, ovinas, porcinas y aves) y su incidencia en las diferentes comarcas.

Palabras Clave: Geografía Agraria, Censo Agrario 1982, España, País Vasco.

ABSTRACT: Approximation to the agrarian space in the Autonomous Community of the Basque Country.

In this article an approximation to the study of grazing space in the Autonomous Community of the Basque Country is made, based on data from the Agrarian Census-1982, studying its economic importance within the agrarian sector and its spacial incidence in the distinct regions. At the same time a study of livestock units (bovine, cattle, sheep, pigs and birds) and their incidence in the distinct region is made.

Key Words: Agrarian Census 1982, Spain, Basque Country.

LABURPENA:

Artikulo honetan Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren abel-azienda espazioaren ikerketari hurbilketa, 1982.eko Nekazal Zentsuaren datuak erabiliz, eskualde bakoitzean duen eragin espaziala eta nekazal sektorearen barneko garrantzi ekonomikoa ikertuz, eskcintzen da. Era berean, azienda unitateetaz (behi-azienda, ardi-azienda, txerri-azienda eta hegazti-azienda) eta eskualde bakoitzean duen eraginaz ikerketa egiten da.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoan (EHKA) nekazaritza, lehengo sektorearen barneko azpisektorerik garrantzitsuentzat jo daiteke, nahiz ohiturazko esanahiarengatik, nahiz bere garrantzi ekonomikoarengatik.

Betidantik, abelazkuntza, lehenengo sektore honen barne kokaturik agertu zaigu, lurralderen arabera balio ezberdin edukiz. Zentzu honetan, adibidez, Kantauriko isuriaren lurraldeetan, baserria aintzinatik nekazal ustiaketen oinarria izan da; haren barne, ohiturazko buruaski-sistemaren ionarri ekonomikoa, abelazkuntzak, nekazaritzak eta basogintzak osatzen zuten. Hegoalderuntz abiatuz, Ertialdea deituriko lurraldean (Arabako Lautada, Ibarrek eta Mendialdea edo urmugaren haranetan, abelazkuntzak lurgintzaren ekintzen osagai-ezaugarria azaltzen zela esan beharra dago. XVIII. mendetik aurrera sortutako kultiboen zabaltzearengatik ez ezik, batipat, merkatu-ekonomia barnera sektorearen sartzarengatik ere. Prozesu hau, XIX. mendearen bigarren zatitik hirigintza eta industriaren garapenarekin lotua joan da.

Sektore honetan sartutako aldatetek, nekazal sektorearen barneko berregituraketa egin dute, hiri-eskaerara produkzioa zuzenduz.

EHKAko azienda-sektorea aztertzeraz joanez iadanik, hasieran, bere garrantzi ekonomikoa azpimarratu behar dugu. Nekazal sektore honen esanahia, Estatuarenarekin konparatzen bagenu, bion arteko ezberdintasun handia baieztatuko genuke.


NEKAZAL AZKEN PRODUKZIOA (1981)

| AKTIBITATEA | EHKA | ESTATUA |
|---------------------|------|---------|
| Nekazaritza | 34,0 | 51,6 |
| Abelazkuntza | 58,0 | 42,4 |
| Basogintza | 6,0 | 3,3 |
| Bestelako produzioa | 2,0 | 2,7 |


Iturri: Eusko Jaurlaritza, 1984-ko Laburbilduma.

Bi erakunde hauen nekazal azken produkzioaren kopuru hauek aztertuz, abelazkuntzaren garrantzi ekonomikoak duen ezberdintasun handia argi ta garbi ikus ahal dugu: Estatuaren mailan duen garrantzi urriaren aurrean, EHKAan duen lehentasuna, aurreko kasoan baino handiagoa, nabaritzen da.

Garrantzi ekonomiko honen ondoan, bigarren aldean, nekazal ustiaketen barne abelazkuntz-sektoreak duen garrantziarengatik nabarmentzen da. Balore kuantitatibo hau azaltzen da, haien guztien barnean azienda-ustiategien kopuruak aztertzerakoan.



ERLAZIO E:N.A./A.U. ESKUALDEREN MAILAN



| USTIATEGIAK | ABELAZKUNTZA | | MIXTOA | |
|-------------|--------------|------|--------|------|
| EHKA | 14373 | 35,1 | 6748 | 16,4 |
| ARABA | 1292 | 16,3 | 801 | 10,4 |
| BIZKAIA | 7439 | 35,0 | 4273 | 20,1 |
| GIPUZKOA | 5642 | 47,9 | 1674 | 14,2 |
| | | % | | % |

Iturria: Nekazal zentsua,1982.


Arestian agertzen diren zifreetan ikus ahal dugun bezala, azienda-ustiatetek, bai haiek bezala, bai kultiboekin erlazonaturik, Araba eta itsasaldeko probintzien artean banaketa ezberdina erakusten dute. Zifra hauetatik abelazkuntzarako bakarrik zuzenduak dauden ustiategien garrantzia azpimarratzekoa da. Era berean, Gipuzkoa-Bizkaiko lurraldean duena eta Araban duen garrantzi eskasaren artean kontrakortasun argia azaltzen zaigu. Itsasaldeko probintzien garrantzia, eta abelazkuntza eta kultiboen ustiatetak kontutan hartzen ditugunean ikus dezakeguna berdina dira.

Bi lurralde hauen arteko banaketa ezberdina, eskualderen banaketa, lurralde banaketaren ionarri gisa hartzerakoan, zenbait berezitasun aukezten ditu.

Azienda-ustiatetak, zentzu zabal batetan, Kantauri isuriaren eskualdeetan gehienez agertzen dira, ondoko mapan ikus ahal daitekenez. Lurralde zabal honetan, azienda-ustiategien kopuru osoaren 96,42 %a agertzen zaigu. Mediterraneoko lurraldean, garrantzi eskasa lortzeaz gain, lurgintza eta abelazkuntza lotzen dituen ustiategi gutxiak portzentai handienak lortzen dituzte. Hegoaldeko lurraldeetan, nekazal-ustiateta honek (abelazkuntza eta lurgintza lotzen duena) indize handienak lortzen ditu (Gorbeia Inguruak 23,1%, Arabako Lautada 30,9%, Arabako Mendiak 56,0 %, eta Errioxa Arabarra 77,1 %). Kantauri isurian, arestian esan dugun bezala, abelazkuntza soilik lantzen duten azienda-ustiategiak nagusi dira. Azienda-ustiateta mota honek, nekazaritzarako erabiliak izan daitekeen lurraldeen erabilgarritasunaren neurriekin, nahiz txikiagoa, nahiz handiagoa, bat egiten du. Lehen aipaturiko ezberdintasun hau, alde batetik, nabari daiteke eskualde hauetan: Plentzia-Mungia, Bilbo Handia, Durangaldea, Donostialdea, Bidasoa Beherea, eta Goierri. Bestaldetik, espazio lauak gutxiago duten eskualdeetan; adibidez, Deba-Beherea eta Urola-kostaldea.

EHKako azienda-sektorearen beste ezaugarria *Azienda-unitate*ek eskualdeetan duten garrantziak eta haien esanahiek ematen dutena da. Aldagai honek, azienda-unitatea(1), lurralde baten azidaren kopuruaren konparaketa, espezie ezberdinen gainetik, uzten du. Era honetan, lurralde banaketari dagokion mapa behatzen

(1) AZIENDA-UNITATEAK. Hauek dira erabilitako koefizienteak azienda-unitateak asma dadin: esnetarako behiak (1,0); bestelako behiak (0,8); 12 hilabeteko 24rako behitarrak (0,7); 12 hilabetetik beherako behitarrak (0,4); arditarrak (0,1); ahuntztarrak (0,1); txerri amak (0,5); umetarako ahardiak (0,5); esne-txerrikumeak (0,027); bestelako txerritarrak (0,3); zalditarrak (0,6); oiloak (0,007); arraultzetarako txitak (0,014); haragitarako oilaskoak eta oilarrak (0,007); bestelako hegaztiak (0,03); untxi amak (0,015). Iturria: E.H.K.A.ko Nekazal Zentsua.



USTIATEGIAK: orientazio tekniko-ekonomikoren arabera

$$\sqrt{\frac{\text{kopurua}}{3}} = \varnothing \text{ mm.}$$



abelazkuntza bakarrik
labore eta abelazkuntza





badugu, Kantauriko isuriaren balore kualitatiboa argi ta garbi agertzen zaigu; lurralde honetan haien kopuruaren 90% ematen. Eredu honen barne, bere esanahia berezia Deba Garaiaaren eskualdea nabarmentzen da. Hemen, eskualderen azia-unitateren 90,1% ustiaketa bati dagokio ,galeperraren haziketa eta gizenketarako zuzendua(2).

Banaketa espazialak Komunitate Autonomoan, azia-unitatearen kopurua eta erabilitako nekazal azalera (ENA)(3) erlazioan jartzerakoan, esanahi berezia hartzen du. Zentzu honetan, Kantauriko isurian eta hegoaldeagoko eskualdeen artean ematen den ezberdintasuna azpimarratu egin behar dugu. Azken eskualde hauetan (Gorbeia Inguruak, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Ibarak, eta Errioxa Arabarra) azia-unitateen garrantzia Kantauriko isuriarena baino txikiagoa da. Fenomeno hau, lurralde hauetako ENAn laboreek duten garrantziarekin erlazonaturik dago. Bestalde, Kantauriko isurian, ENA urriaz duen aziadaren garrantzia askoz handiagoa da, ondoko mapan ikus ahal dugunez; eta salbuespen berezi batzuk ezik (Bidasoa Beherea, Deba Garaia), muga ia berdinen barne mantentzen da.

Azia-unitate eta ustiategien banaketa espaziala ezberdina bada; azpi-sektore honen espezia nagusiak aztertzerakoan, barruti batzuetan azaltzen zaigun nagusitasuna topo egiten dugu. Hortarako, EHKAREN mailan duena eta eskualde

(2) Mapa batzuetan, eskualde honi dagozkion datuak lerro etenekin agertzen dira; kasu honetan, ustiaketa honek eskualdearen osoz duen balore kuantitatiboa ez da kontutan hartu.

(3) Erabilitako Nekazal Azalera = Lur landuak + belardiak, pentzeak eta larreak.



bakoitzean barnean duena balore erlatiboa, espezie ezberdinetan (ionarri gisaazienda-unitatea hartuz), erlaziotan jarri dugu. Emaitza, lurralde-banaketaren baieztapena izan da, hau eskualde mailan espeziezazienda-espezialitatea dei daiteke.

Behi-aziendaren kasoan, Kantauriko isuriko eskualde gehienetan eta Gorbeia Inguruetan azaltzen duen nagusitasunaren ondoren,azienda-ustiketaren barne garrantzi handia du. Eskualde mailan duen garrantzi honek bere indize handiena Bilbo Handian eta Enkartazioetan lortzen du; atzean kokatuz, Deba Beherea, Urola-Kostaldea eta Gernika-Bermeo. Bigarren taldea, unitatearen kopuru osoaren 50% eta 70% bitartean suposatzen dutenazienda-unitateek, osatuko lukete. Honetan, Kantauriko isuriaren beste zatia, (Bidaso Beherea eta Deba Garaia ezik) eta Gorbeia Inguruak sartuko liriteke.

Ardi-aziendak, behi-aziendaren itsasaldeko probintzian duen kontzentrazioaren aurrean, barneko eskualdeetan nagusitasuna aurkezten du. Hartzen du ia Araba osoa (Arabako Lautada ezik), eta itsasaldeko probintzien hegoaldeko eskualdeak. Banaketa honen barne, bi dira azpimarratu behar ditugun ekintzak. Alde batetik, EHKaren mailan, eskualde batzuetan ardi-azienda unitateak duen garrantzi erlatiboa. Horrela, Errioxa Arabarran gertatzen da, 25,4% errepresentatuz, bere goibelan Kantauri Arabarra dator (21,5%). Bestaldetik, komunitate mailan, eskualde batek duen garrantzi nabarmentzen da, Kantauri Arabarra, ardi-azienda unitatearen 11,4% han agertuz.

Artikulo honetan, aipatzen dugun hirugarren espeziea, txerri-azienda da. Azienda-unitate hauen lurralde banaketak arestian aipaturiko espezien kontzentrazio handiagoa aurkezten du. Fenomeno hau, txerri-ustiaketaren ezaugarri intentsiboarekin erlazionaturik dago. Hiru eskualdeek (Bidaso Beherea, Arabako Lautada, eta Arabako Mendialdeak) espezie honenazienda-unitatearen kopuruaren 42,5% hartzen dute. Bidasoa Beherean,azienda-unitateen eskualdeko kopuruaren barne (58%) garrantzi handia lortzen duen espeziea da.

Azkenik, lurralde mailan, hegaztien banaketaren barne, bere banaketa ezberdina azpimarratu beharra dago. Lerro handietan, hirigune nagusien inguruan dauden eskualdeekin bat egiten du. Bestalde, lehen esaten genuen bezala, espezie honen barne Deba Garaia lortzen diren datuek daukaten esanahi berezia nabaritzen da. Hemen, EHKaren mailan,azienda-unitate honen kopuru osoaren 90% agertuz. Orain arte ikusiriko ikuspe zabala egiterakoan,azienda sektorearen lurralde banaketa, fenomeno batzuen bidez nabarmentzen da.

- a) Kantauriko isuriak barneko lurraldearen aurrean duen nagusitasuna. Azken honetan, nekazal ekintzakazienda-ekintzak baino garrantzitsuagoak dira.
- b) Abelazkuntzak nekazal sektore barnean duen balore ekonomikoa.
- d) Lurraldeenazienda-espezie ezberdinek duten eragin ezberdina. Laburki esan dezakegu, itsasaldeko eskualdeetan behi-azienda nagusi dela, eta barneko eskualdeetan ardi-azienda,ordea. Bere aldetik, txerri-aziendak bere kontzentrazioa eskualde batzuetan du; hegaztiak, berriz, hiriguneen inguruan kokatzen direlarik.



ESKUALDEAK:

1. Arabako Ibarrak
2. Arabako Lautada
3. Arabako Mendialdea
4. Bidasoa Beherea
5. Donostialdea
6. Bilbo Handia
7. Gernika-Bermeo
8. Markina-Ondarroa
9. Plentzia-Mungia
10. Deba Garaia
11. Enkartzioak
12. Errioxa Arabarra
13. Goierri
14. Gorbeia Inguruak
15. Arrati-Nerbioi
16. Durangaldea
17. Kantauri Arabarra
18. Tolosaldea
19. Deba Beherea
20. Urola Kostaldea.